# Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

**SESTAOKO UDALA**

IRAGARPENA, lanpostuen zerrenda aldatzeari buruzkoa.

**ANDOAINGO UDALA**

IRAGARPENA, Andoaingo 24 sektorean eta 25 zonaldean Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen elementuen 2. Aldaketaren antolaketa eta garapenerako irizpide eta irtenbide orokorrei buruzkoa.

# Otros Anuncios Oficiales

**AYUNTAMIENTO DE SESTAO**

ANUNCIO relativo a la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo.

**AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN**

ANUNCIO sobre los criterios y soluciones generales de la ordenación y desarrollo de la 2ª Modificación de Elementos de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Urbanístico Municipal de Andoain en el Sector 24 y Zona 25.

# Xedapen Orokorrak

**OSASUN SAILA**

**Zk-4660**

AGINDUA, 1997ko irailaren 3koa, Osasun sailburuarena, errepide bidezko Sanitate-Garraioari buruzko Arautegia onartzen duen Dekretuko II. eranskina aldatzen duena.

Errepide bidezko Sanitate-Garraioari buruzko Arautegia onartzen duen azaroaren 25eko Dekretuko 10. atalean, Lan, Osasun eta Segurtasun Sailaren Agindubidez aldatuko direla eranskinak ezartzen da; hala ere, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioko Sailen egitekoak eta jardute-eremuak finkatzen dituen urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuko 12. atalean xedatzen denaren arabera, gaur egun Osasun Sailari dagokio hori egitea.

Aipatu den 279/1986 Dekretuan, anbulantzien kopuruaren kupoa finkatzearen aldeko aukera egin zen, era honetan, zerbitzuen kalitatea hobetu egingo zenaren ustetan. Hala ere eta igaro den denboraldiak eskaini duen ikuspegia eta bildu den esperientzia kontuan hartzeak zera eman du aditzera, hau da, mugaketa horiek eragozpen izan direla sanitate-garraiorako enpresen garapenerako. Bestalde, garraio moeta honek dinamikotasuna izan behar du eta malgutasunez egokitu behar zaie merkatu honek dituen laguntza-beharrei. Ondorioz, 279/1986 Dekretuko II. eranskinean finkatzen den kupoa desagertaraztea da agindu honen xedea.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

**N°-4660**

ORDEN de 3 de septiembre de 1997, del Consejero de Sanidad, por la que se modifica el Anexo II del Decreto que aprueba el Reglamento del Transporte Sanitario por Carretera.

El Decreto 279/1986, de 25 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Transporte Sanitario por Carretera, establece en su artículo 10 que los Anexos del mismo se modificarán por Orden del Departamento de Trabajo, Sanidad y Seguridad, si bien actualmente le corresponde al Departamento de Sanidad, a tenor del artículo 12 del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de determinación de funciones y áreas de actuación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En el citado Decreto 279/1986 se optó por la contingentación en el número de ambulancias, por considerar que con ello se conseguía una mejor calidad de las prestaciones. No obstante, desde la perspectiva del tiempo transcurrido y tras la experiencia acumulada, se ha constatado que esas limitaciones han supuesto un escollo para el desarrollo de las empresas de transporte sanitario, cuando éste ha de ser un sector dinámico y debe adaptarse a las necesidades asistenciales del mercado con flexibilidad. En su consecuencia, mediante la presente Orden se pretende que desaparezca la contingentación prevista en el Anexo II del Decreto 279/1986.

Ondorioz, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Azaroaren 25eko 279/1986 Dekretuko II. eranskina indargabetu egiten da agindu honen indarrez.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1997ko irailaren 3a.

Osasun sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

Por todo ello,

DISPONGO:

*Artículo único.*– Por la presente Orden se suprime el contenido del Anexo II del Decreto 279/1986, de 25 de noviembre.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de septiembre de 1997.

El Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

### Zk-4661

4/1997 FORU ARAUA, uztailaren 8koa, Sozietateen gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen dituzten Foru Arauen hainbat artikulu aldatzen dituena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «uztailaren 8koa, Sozietateen gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen dituzten Foru Arauen hainbat artikulu aldatzen dituena», eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia-San Sebastián, 1997ko uztailaren 8a.

Diputatu Nagusiak,
ROMAN SUDUPE OLAIZOLA.

HITZAURREA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak nabarmen aldarazi zituen oinarri ezargarria kalkulatzeko erregelak. Izan ere, lehengo sisteman oinarri ezargarriaren kalkulua egiteko kontabilitatez kanpoko erregelak nagusitzen baldin baziren, oraingo sisteman, berriz, kontabilitate emaitza dugu berez oinarri ezargarria zehazten duena, emaitza hori zuzentzen duten zenbait salbuespen legal egon badaude ere.

## JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

### N°-4661

NORMA FORAL 4/1997, de 8 de julio, por la que se modifican diversos artículos de las Normas Forales del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 4/1997 de 8 de julio por la que se modifican diversos artículos de las Normas Forales del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre Bienes Inmuebles» a los efectos de que todos los ciudadanos, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación la guarden y hagan guardarla.

Donostia-San Sebastián, 8 de julio de 1997.

El Diputado General,
ROMAN SUDUPE OLAIZOLA.

PREÁMBULO

La aprobación de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, supuso una modificación sustancial en las reglas de determinación de la base imponible, pasándose de un sistema donde las reglas extracontables eran elemento principal en la determinación de la base imponible, al sistema actual donde el resultado contable es por excelencia el que determina la base imponible, sin perjuicio de que sí existan algunas excepciones legales que corrigen dicho resultado.